

Laudion elkarretaratzea egingo dute hizkuntza- eskubideen aurkako eraso berria salatzeko

- **Laudioko Udaleko lanpostu bateko hizkuntza-eskakizunaren aurka jotzeko euskara “zaila” dela argudiatzen zuen epaia berretsi du EAEko Auzitegi Nagusiak.**
- **Euskalgintzaren Kontseiluak aurkeztutako protokoloa aktibatu eta elkarretaratzea deitu dute gaur Aiaraldeko euskalgintzarekin batera. Eragile politiko, sindikal eta sozial ugari batu dira deialdia.**
- **Epaileentzat euskararen normalizazioa sustatu nahi duten neurriak baliogabetzeko edozerk balio duela salatu dute.**

2023ko abenduaren 21a

Pasa den astean publiko egin zen Laudioko Udaleko lanpostu batean euskara-eskakizuna atzera bota zuen sententzia berretsi duela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Epaia hori polemikoa izan zen euskara "hizkuntza zaila" baieztatzen zuelako, interneteko blog batetik kopiatutako argudioak erabiliz. 2022ko otsailean, ehunka pertsona [batu ziren](#) Laudion oldarraldi judiziala salatzeko elkarretaratzean eta batasunetik erantzuteko deia egin zuten. Horri erantzunez, pasa den azaroan 4an Euskalgintzaren Kontseiluak deituta hamarka mila pertsona [manifestatu ziren](#) Bilbon.

Manifestazioaren ondorengo egunetan, *Hizkuntza Eskubideak Babesteko Protokoloa* [aurkeztu zen](#), eta azken sententzia honen harira, Aiaraldeko euskalgintzak protokoloa aktibatu zuen. Ondorioz, epaiarekin desadostasuna agertzeko, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak elkarretaratzea deitu dute gaur, hilak 21, 18:00etan Laudioko Herriko plazan. Halaber, eguerdian Laudioko Udal Langileen Batzordeak ere elkarretaratzea egingo du.

Eskualdeko zein herrialdeko eragile politiko, sindikal eta sozial ugari atxikimendua eman dute: Aiaraldeko EAJ, Aiaraldeko EH Bildu eta Laudioko Omnia alderdi politikoek; ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek; Laudioko Udaleko Langile Batzordeak; Aiaraldeko AEK-k eta Laudioko Udal Euskaltegiak; hezkuntza komunitatetik, Laudio Ikastolak, Laudio BHIko zuzendaritzak, Amurrioko Aresketa Ikastolak, Latorro Ikastetxeak, Urduñako Herri Eskolak, Laudioko Areta Herri Eskolak, Mendiko Eskolak, Zabaleko Ikastetxeak eta Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik! plataformak; eta eskualdeko hainbat elkarte: Aiaraldea Koop. Elkarateak, Basalarrina Euskaltzale Elkarateak, Hogeitalau elkarateak, Sorginlarren elkarateak eta Kirikino Atsedeen Taldeak, besteak beste.

Jarraian, Euskalgintzaren Kontseiluak epaiaren aurrean egiten duen adierazpena:

KONTSEILUAREN ADIERAZPENA

Oldarraldi judizialak ez du etenik. Sententziaz sententzia gero eta argiago geratzen ari da olatu erreakzionario, atzerakoi eta euskarafobo honen atzean ezkutatzen den mezua: urrunegi joan zarete eta mugak jarri behar dira.

Edozerk balio du epaitegietatik euskararen normalizazioa sustatu nahi duten neurriak baliogabetzeko: ezin da euskara eskatu “diskriminatzailea” delako, ezin da euskara eskatu “inposizioa” delako, ezin da euskara eskatu “gehiegizkoa” delako, ezin da euskara eskatu “zailegia” delako...

Hain zuzen, zailegizat jo zuen euskara Laudioko udal lanpostu baterako hizkuntza eskakizuna baliogabetu zuen azken epaileak. Aurrekoa berrestera dator EAeko Auzitegi Nagusiaren epaia, herritarron hizkuntza-eskubideak kontuan ez hartzeaz gain, adituen arabera oinarri juridiko erabat eztabaidagarriak dituen. Esan bezala, edozerk balio du euskararen aurrerabidea oztopatzen saiatzeko.

Beste behin ere, udalek langile publikoei euskararen ezagutza eskatzeko duten eskumena izan dute auzitegiek jo puntuan. Udalek hizkuntza-politika egiteko duten eskumenaren aurka jo dute, alegia. Horregatik, gaur eta hemen, ozen salatu nahi dugu botere judizialaren esku-hartzea hizkuntza politiketan, bereziki adostasun politiko eta sozial zabalaren ginetik egiten denean eta milaka herritarroei hizkuntza-eskubideak, oinarrizko eskubideak, ukatzen dizkigutenean.

Onartezina zaigu, gainera, epai hauek denak lotzen dituen premisa faltsua: lan eskubideak eta hizkuntza-eskubideak elkarren kontrakoak direla, kontrajarrita daudela. Auzia oso bestelakoa denean: elkar osatzen eta indartzen duten eskubideak dira. Hizkuntz eskubideak bizimoduko alor guztietan gauza daitezkeenean soilik bihurtzen baitira egiazko eskubide, lanean barne. Gehiengo sindikalak sententzia hauen aurrean erakutsitako arbuio irmoa dugu horren frogara.

Pasa den azaroaren 4an Bilboko kaleak bete genituen aldarri berarekin atera gara gaur Laudioko plazara. Euskalgintzaren Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak deituta, gehiengo sindikala eta langileen ordezkariak, hezkuntzako eragileak, euskaltegiak, udal ordezkari eta alderdiak, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, eta, batez ere, herritar euskaldun eta euskaltzaleak... mezu argi batekin:

Euskaraz bizi nahi dugu eta ez dugu eskubide murrizketarik onartuko!

OLDARRALDIAREN AURREAN

EUSKARAREKIN BAT

EUSKARAZ BAT

